



## Bide Segurtasuna

2014an, 2.123 auto-istripu gertatu ziren. Horietatik, 144 harrapatze-istripuak izan ziren. Pertsona bat hil zen, ibilgailu batek harrapatu ondoren; eta hiriko kaleetan istripuz hildako pertsona bakarra izan zen. 34 lagun larriki zauriturik gertatu ziren; erdiak oinezkoak. Azken urteotako joeraren arabera, trafiko-istripuak beherantz doaz. Horrela, 2004ko 3.283etatik, edo 2005eko 3.456etatik 2014ko 2.123etara igaro gara. Azken hamar urte honetan, 2013an gertatu dira istripurik gutxien, eta gero, 2014an, 2013an 2.000 istriputik behera gertatu baitziren hirian; 1.928, zehazki.

Azken hamar urte honetan, behera egin du Iruñeko udal-barrutiko errepideetan larriki zauritutakoen eta hildakoen kopuruak. 2004an, 8 lagun hil eta 68 larriki zauritu ziren. 2014an, lagun bat hil zen, eta 37 larriki zauritu ziren. 2014an larriki zauritutako eta hildako guztietatik (38 lagun), 17 oinezkoak izan ziren; 13, gidariak edo ibilgailuan eta ziklomotoreetan zihoazenak; 7, txirrindulariak, eta 2 autoetako gidariak edo erabiltzaileak. Gainera, 677 lagun arin zauritu ziren istripuz. 2004an, aldiz, 1.500 lagun izan ziren arin zaurituak.

Hona zer hiletan izan ziren larriki zaurituriko edo hildako gehienak: apirilean (6 zauritu larri), urtarrilean (5 zauritu larri) eta martxoan, maiatzean eta azaroan (4 zauritu larri lehen bi hiletan, eta 3 zauritu larri, eta hildako bat azaroan).

|                                  | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|----------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| <b>Istripuak,<br/>guztira</b>    | 3283 | 3456 | 3090 | 3004 | 2786 | 2585 | 2757 | 2557 | 2273 | 1928 | 2123 |
| <b>Harrapatze-<br/>istripuak</b> | 191  | 201  | 180  | 166  | 165  | 171  | 143  | 153  | 146  | 141  | 144  |

|                          | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|--------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| <b>Hildakoak</b>         | 8    | 2    | 2    | 4    | 3    | 0    | 6    | 3    | 5    | 2    | 1    |
| <b>Larriki zaurituak</b> | 68   | 86   | 70   | 71   | 69   | 61   | 33   | 26   | 22   | 31   | 37   |

2014an, Iruñean bide-segurtasunaren aurkako 318 delitu izan ziren; hau da, 2013an baino ia % 25 gutxiago. Gainera, etilometria-kontrolen % 3,7k positibo eman zuten; kopururik txikienetan bigarrena azken hamarkadan. Bide-segurtasuneko delitu guztiek behera egin zuten, 2013aren aldean. Lau delitutatik hiruk etilometria positiboekin izan zuten zerikusia, eta epaitegietara bidali ziren. Zehazki, 237 izan ziren; hau da, 2013an baino % 25 gutxiago. Guztira, 41 lagun atxilotu zituzten gidabaimenik gabe gidatzen ari zirelako (delituen % 12,8), puntuak galdu izanaren ondorioz edo epai judizialez gidabaimenik gabe gelditu izanaren ondorioz, edo gidabaimenik ez izatearen ondorioz. Beste 23 lagun (% 7,2), arduragabekeriaren ondorioz lesio-delitua egiteagatik.

Horrez gain, zortzi delitu egin ziren, etilometria-kontrola egiteari uko egiteagatik; sei, hirian ausarkeriaz gidatzeagatik; bi, substantzia estupefazianteen eraginpean gidatzeagatik; eta homizidio-delitu bat arduragabekeriak jokatzearen ondorioz. Inork ez zuen gainditu hiriko abiadura-muga orduko 60 kilometrotan baino gehiagotan. Hori behin gertatu zen 2013an, eta bitan, 2011n eta 2012an.

Guztira, 2014an, 13.877 salaketa jarri ziren; hau da, 2013an baino % 7 gehiago. Kopuru horretatik, 7.047 (% 50 baino gehixeago) aparkatzeak eragindako isunak izan ziren; 3.658 (% 26), hirian gehiegizko abiaduran joateak eragindakoak (hala kabinek nola radarrek atzemandakoak); 597 etilometria positibo izan ziren; 358, ibilgailuaren aseguruarekin zerikusia zuten kontuengatik; 345, mugikorra erabiltzeagatik; eta drogak eragindako 62 positibo.

2014an, 17.868 alkoholemia-kontrol egin ziren; hau da, 2013an baino zortzi mila gehiago (9.850 egin baitziren). Horien % 3,7 positiboak izan ziren (659); hau da, kopururik txikienetan bigarrena azken hamar urte honetan, eta 2011ko kopurua soilik izan zen txikiagoa, hots, % 3,3. 659 etilometria positiboetatik, 597ri administrazio-zehazpenak ezarri zitzaizkien, eta 62, berriz, bide judizialaz bideratu ziren, delitu-tasetara iritsi baitziren.

2014an, Iruñeko Udaltzaingoak 429 droga-proba egin zituen, 2013an egindako 149ak hiru halako. Kontrol gehiago egin baziren ere, bi kasu bakarrik bidali ziren auzitegietara, 2013an adina. Halaber, 62 positibo administratibo atzeman ziren; hots, estupefazianteak kontsumituta gidatzen ari zirenak, baina delitu-tasetara iritsi gabe. 2013an, kontrol gutxiago eginda, 101 lagunaren kontrako salaketak jarri ziren. 2014an, 429 proba egin ziren, eta horien % 85 negatiboak izan ziren.

Hiriko hainbat errepidetan dauden radar-kabinek Iruñean zebiltzan 3,9 milioi ibilgailu kontrolatu zituzten, 2014an. Kabina horien neurketek 2.373 salaketa eragin zituzten; hau da, 2013an baino % 28 gutxiago. Radar-kontrolak dagokienez, 1.748 kontrol egin ziren; haietatik 422.807 ibilgailu pasatu ziren, eta 1.285 arau-hauste atzeman ziren, baina bakar bat ere ez zen delitua izan.

Autobus-geltokiaren aurrean, badago aldi baterako aparkatzeko moldatua dagoen eremu bat, bidaiarien

joan-etorria errazteko; bada, eremu horretan 804 salaketa jarri ziren; 2013an, aldiz, 537, eta 2012an, 502. Urtean zehar egindako kanpainetan, Talde Teknologikoak 326.107 ibilgailu kontrolatu zituen. 329 ibilgailuri zehapena jarri zien aseguratik ez izateagatik; aparkatzearekin zerikusia zuten 313 salaketa jarri zituen; 22 ibilgailu bahitu zituen, hamaika lagun zehatu zituen derrigorrezko gidabaimenik gabe gidatzeagatik, eta 374 jarduketa egin zituen garabiarekin eta ibilgailuak eramatearekin lotuta.

